

AIINGERU BATEK

Aingeru batek Mariari dio, graziaz betea Jainkoaren semeari emanen diozu sortzea...

Zelutik jinik ainguriak Mariari du mezutzen amatako Jinko semiak hura diala aitatzten.

Jaunak erranen egiteko haren neskatoa nuzu birjina egonez amatzeko zure hitzer niagozu

Mariaren baitan berboa ordian gizon egiten Jesus gizon egin Jinkoa gure artean egoiten.

Othoi zazu Jesus gu-gatik Ama Birjina Maria ukhen dezagun haren-ganik hitzeman deikun gloria.

BOZKARIO

Bozkario bozkario bozkario munduan dugun lauda misterio asmatua zeruan, Gizonaren erosteko Jinko gizon egina gure zorren pagatzeko bera zordun emana.

Jainko gizon gizon Jainko mirakuilu handia pitz dezagun sinesteko fedearen argia, beti dela adoratu haren Jainkotasuna mundu guzian laudatu haren gizontasuna.

Jaunen Jaunaren sortzeko nun da hiri ederrik zoin da haren ikusteko aski egun argirik, Eguberri gau bethean atzar mundu zoroa Bethem hiri xumea adora haur Jainkoa.

EGUBERRI EGUBERRI

Eguberri Eguberri gaur da Eguberria jaio berri horrengana berala joan dira.

Ediren dugu ediren gure Jauna Belenen goazen bada Belenera hari gur egitera.

Arague aldetikan izar bat atera da erregeak bidaltzeko Belengo estalpera. Galdeginez galdeginez non den jaio berria hiruak sartu dirarde Jerusalem barna.

Hiruak eman diote Jesusi emai bana urre gorri eta mirra eta intzentsu ona.

Artzainak berriz gabiltza berri on hau ematen gizon umil bat eginik Jesus gaur jaio baitzen.

Aingeru onak berriz hasi dire kantatzen tristeak dituztela boztera gonbidatzen.

Errepikatzen dute maniurez artzainek aradari lehiaz ihardasten larrainek.

Arrainak ere jauzi ziren paguz urean abreak basoan eta egaztinak airean.

Idolak aldaretan betan dire mututu aztiek arrazoina miretsirik galdetu.

Ixildu behar zuten guk ordainez kantatu zorionean dela Jainko semea sorthu.

HOTS AINGURIEKI

Hots, ainguriei arkanjelieki gaur kantatzera gaur kantatzera gur'erregiaren Jinko Semiaren adoratzera.

Ez izotzagatik ez ülhünpegatik egon herabez egon herabez har fedia gida Jinkoatan fida goatzan lasterrez.

Badoatza artzainak arhinik belhainak laster zoin lehen laster zoin lehen ikhus diroienez eia sorthü denez Jesús Bethlemen.

So zaukon idia ütziarik jatia phausü handitan phausü handitan Jesús beitzen hoztü hatsaz zizün gorthü behar ordian.

Harentzat etxerik hain gütti oherik ihurk etzian ihurk etzian ez zen emanginik ez beitzian minik haur ükheittian.

Dezagün gük ere bihotzez ber'ere Jesús adora Jesús adora ezar gitzan gero bere haurrak oro zelian gora.

BIHAR EGUBERRI DUGU

Bihar Eguberri dugu noelak erranen tugu zorionean dela Jainko semea sortu.

Mundu guztia duzu zorionez bethetzen zergaitik baitiozu salbatzailea ekhartzen.

Argizagiak dira bozkarioz dantzatzen ohi baino dutela gehiago argizen.

BELEN BELEN

Belen Belen da Belenen jaio da Jesus Nazaren.

Gabon gabeko hamabietan altzoan dantzan zerabilen.

DIOS TE SALVE

Dios te salve, ongi etorri, gabon Jainkoak digula, gabon Jainkoak digula eta urte onean sar gaitzala.

Etxeko andere galanta, begia duzu xarmanta, zure eskutik desiratzen dugu xingarra eta lukainka.

Etxeko andere, nunzira? hil ala bizi zira? lehengo hura balin bazira, emazte galanta zira.

Arrollte bat gutixe, biga ere holaxe, hirur eman bazinintza, zure parerik ezlaite.

Nagusi jauna, nunzira? hil ala bizi zira? leheneko balin ba zira, gizon galanta zira.

Etxean eder arresa, jauregian arrosa etxe huntako nagusiak iduri du arrosa.

Etxean eder ohako, haurra sortzen deneko, etxe huntako etxeandereak sekulan eztu beharko.

Etxean eder kortzeiru, dabilanean inguru, etxe huntako etxeanderea Parabisuan ainguru.

Goazin goazin hemendik, hemen ez tun xingarrik, etxe huntako gazitegian saguak umeak hazten tik.

KRISTO GUZIEK DEZAGUN EGUN ADORA

Kristo guziek dezagun egun adora.

Hauze da izarra agertzen dena berri bat dakarke den handiena Jesus maitearen sortzearena.

Kristo guziek dezagun egun adora.

Hirur erregeak ditu gidatzen Jesus haurra gana dire hedatzen presentekin dute han adoratzten.

Kristo guziek dezagun egun adora.

Mirra intzentsua eta urhea ekartzen dautzute salbatzailea zuri eskaintzeko presente berea.

Kristo guziek dezagun egun adora.

Hitz batez hirurek fede osoa badute zarela Jaun zerukoa gizon monarka eta Jainkoa.

Kristo guziek dezagun egun adora.

Kristo guziek dezagun egun adora.

TXAMARRA TXARTXO BAT

Txamarra txartxo bat, Jauna zuri gorputz eder horren estalgarri emango nizuke gusto handiz luzean laburrean ongi balitz.

Ai, oi, Gabaren on! jaio berri hori non degu, non?

Lagunak era baditugu lau artzain eta bost unai gartsu Santxo, Peru eta Martin Antton Frantxisko, Paulo, Beltxior, Simon.

Ai, oi, Gabaren on! Jaio berri hori non degu, non?

HIRUR ERREGEREKI

Hirur erregereki maiteki laidatzen zutugu dutugunak haieki eskeintzen daitzugu.

Izar bat zan argirik, handirik zelutik agertu erregiak jaikirik barhal'abiatu.

Oi Birjiña Maria, garbia othoizten zutugu semiaren sortzia balia bekigu.

Jesus zelieta, lurreko kreatzaile Jauna othoi altxa gitzatzu heleraz zugana.

AI HAU GABAREN

Ai hau gabaren preziosoa Jesus jaio da Belenen etxe honetan sartu ote da bila gabiltza beronen.

Erdiok gara ola gizonak beste erdiok harotzak limosnatxo bat egitekotzat bigundu bediz bihotzak.

Ama gureak bere behiari kaikua esne bildurik epel-epelik, giro-girorik hartu baleio gustorik.

Hor goitik eta berainokoak artzain zahararren saltoak bildots handia lepoan duela altxa ezinik orpoak.

Belaunbikoka joan ginaden Nazaretikan Belena geuk adoratu behar gendula Jesus maixua lehenena.

GAIAREN GAI ONA

Gaiaren gai ona sortu da Jinko ona iguzkitik datorke erakusteko birtute.

Ogi xuria ostiarako ardu ona kalitzeko ketan bietan konberti truk Jesukristo goretako.

Oilarra xuria mundutik ainguru ona zerutik gora Jesukristo jeinaren grazia mundu guzutik.

EZKILAK

Ezkilak errepikatzen jendea zer den galdatzen Lekarozko erretor jauna aingeruakin mintzatzen.

Eman duzu nobleki konpainak ere badaki zure gaurko eman honekin eginen dugu tortxari tortxak behar du argi argiak argizaria.

ANA TA JOAKIN

Ana ta Joakin Peru ta Martin goazen zortziko dantzara Gabon gabaren zoro ez tana zororik handiena da.

Portala zaharra loraz beterik Gabon gabaren erdian marabilea jaiotzen dago Jaungoikoaren semea.

Txomin ta Patxi Anton ta Paulo datoz hor goiko menditik aditurikan haurtxo eder bat dagola estalpe batean.

Santxo ehiztarik eramaten dau erbi handia lepoan Pellok intxaurrek Anak, pozturik hiru eper bizi golkoan.

a)	AIINGERU BATEK MARIARI	3,04	b)	DIOS TE SALVE	3,22	abeslariak:	eres laguntzak:
	HOTS AINGURIEKI	3,56		KRISTO GUZIEK DEZAGUN	2,41	BAKARTXO MARITXALAR	ANTTON VALVERDE
	BIHAR EGUBERRI	3,55		EGUN ADORA	2,13	AGUSTINA PONTESTA	zuzendaria:
	BOZKARIO	3,35		TXAMARRA TXARTXO BAT	2,40	ELIXABETE URRETA	LUIS ROMERO ESKAMENDI
	EGUBERRI EGUBERRI	3,32		HIRUR ERREGEREKI	4,14	IÑAKI MARITXALAR	azalaren maketa:
	BELEN BELEN	2,10		AI HAU GABAREN	2,13	JOXE LUIS TREKU	OTEIZA/GARRIDO
				GAIAREN GAI ONA	2,13	IÑAKI ZABALETA	olentzero irudia:
				ANA TA JOAKIN	2,41		AYALDE